

AZKEN BERRIAK IRAKASGELA

2023ko URTARRILA

Hezkuntza Sailaren politika murriztaileari, planto!

Azken urteetako joera murriztailea modu nabarmenean areagotu du Hezkuntza Sailak 2022-2023 ikasturtean. Lau hilabeteren buruan langileok hainbat eta hainbat eraso jasan ditugu gure lan-baldintzen aurka, horietako asko pisu handikoak gainera.

Hezkuntza Sailak langileen ordezkarien papera eta, ondorioz, negoziazio kolektiboa alboratzea erabaki du. Eta azken hori deuseztatuta, urteetan zehar gure lan-baldintzak ordenatu dituzten elementu garrantzitsu asko eraldatuko dituen bide murriztailea abiatu du.

Hurrengoak dira ikasturtea hasi zenetik Hezkuntza Sailak hartu dituen edo hartu nahi dituen erabaki kaltegarriak:

1 - Baja eta baimenen ordezkatzeko eza: Abenduaren amaieran Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzek ordezkapenak kudeatzeko jokabidea aldatu zuten. Jarraibide horri jarraiki, baja egoera abenduaren 23tik aurrera mantenduko zela aurreikusi ezker, Gabonetako oporraldiaren aurreko azken lan egunetan suertatukoak ez dira ordezkatu. Ondorioz, irakasleen soldata aurrezte helburu, ehunka ikasle irakaslerik gabe utzi dira urteko azken egunetan.

Aurrekoarekin bat, azaroaren 30ean jakinarazi zuten, aurrerantzean data jakin batzuetan (abenduko zubian, San Tomas egunean, inauterietan, etab.) eskatzen diren norberaren eginkizunetarako baimenak ez dira ordezkatu. Argi dago ordezkapena ukatuta, langileak norberaren eginkizunetarako baimenak ez hartzera bultzatu nahi dituela Hezkuntza Sailak. Gainera, baimena disfrutatzen jarraituko den kasuetan, baimena hartu duen langilearenaz gain, ordezkaren ordainsaria ere aurreztuko du Hezkuntza Sailak.

2 - Oporren ordaintzarako irizpideen aldaketa: Hezkuntza Sailak oporren erregimena erabat eraldatzeko asmoa du. Lehenik, abuztuan argitaratutako jarraibide berri baten baitan abuztuko oporraldia ordaintzeko irizpidea eraldatu zuen, urteetan mantendu duena baina askoz ere irizpide murriztaileagoa ezarri.

Bestetik, oraindik sindikatuoi hau jorratzeko aukerarik eman ez zaigun arren, urteetan indarrean izan den oporraldi erregimena iraultzeko asmoa adierazten duen testu zirriborroa igorri digu Hezkuntza Sailak. Horren arabera, ikasturtean zehar gutxienez 165 egun lan egin izanak ez luke uztaileko eta abuztuko ordainsari osoa jasotzeko eskubidea aitortuko. Dirudienez, uztaileko ordainsaria soilik hilabete horretan kontratuean daudenek jasoko lukete.

3 - Udako soldataren itzulera: Aurrekoarekin lotuta, abuztuko ordainsaria unera arte zegokien moduan jaso ondoren, kasuan kasu, iraileko eta urriko nominekin bat irizpide berria aplikatu eta hainbat langileri jasotako soldataren deskontua egin zaie. Bereziki larria deritzogu hau inolako azalpenik gabe eta abuztuan bertan onartutako irizpidea atzeraeraginez aplikatuta egin izana.

4 - Etxez-etxeko zerbitzuan murrizketak: Abenduan zehar murrizketa onartezinak eman dira gaixotasun larriak dituzten ikasleei zuzendutako etxez-etxeko zerbitzuan. Berriz ere irizpide ekonomizistek jarraiki, zubi eta oporraldi garaietan ikasleei emandako zerbitzua moztu edo mugatu da eta horrekin bat, baita irakasleen kontratu eta lanaldiak ere.

5 - Digitalizazioa eta curriculum formazioa: Ikasturtearen hasierarekin bat martxan jarri duten beste ekimen bat da digitalizazioan eta curriculumean (oraindik zirriborroa dena) trebatzeko ikastaroa. Ia azalpenik gabe eta laguntza eskasa eskainita, irakasle guztiok teoriarik 40/50 ordu izango dituen ikastaro bat egitera behartu nahi gaituzte. Baina zer dela eta ikastaro hauek? Zein epe barruan egin behar dira? Zenbat denbora eskaini behar zaie errealitatean? Zer gertatuko da egin ez dutenekin? Asko dira galderak eta momentuz ez dugu azalpenik txikiena ere jaso.

Aipatutakoei lekualdatze-lehiaketako lanpostu proposamen erabat eskasa, EPE prozesu murriztaileak, kurtso hasierako esleipenen anabasa etab. gehitu behar dizkiegu. **Aurrekoa gutxi balitz, beste hainbat eremutan ere ez da inolako aurrerapausorik planteatzen ari**, hala nola: erretiroan, lan-osasunean, soldadak KPIrekin lotzean, ratioetan edo enpleguan. Gai horietan negoziazioa geldirik dago eta Hezkuntza Sailaren partetik ez dago horiei ekiteko inolako asmorik.

Horren aurrean, ELA sindikatuak argi izan du zein zen Hezkuntza Sailaren erabaki eta planteamenduen aurrean izan beharreko jokabidea. Eraso murriztaile hau mantentzen den bitartean, ezin gara Hezkuntza Sailak eskaintzen dizkigun hondarrak lortzearekin konformatu.

Dagoeneko **2018an**, gainerako sindikatuak Hezkuntza Sailarekin sinatu zuten akordiotik at geratu ginen, arlo batzuetan atzerapausoak zekartzalako eta beste askotan inolako aurrerapausorik ematen ez zelako. Arrazoi berdinegatik, **2022ko maiatzaren 26ko ratioen eta plantilla esleitzeko irizpideen inguruko akordioa sinatu ez zuen sindikatu bakarra izan ginen. Izan ere, akordio hori sinatzeak, eduki erabat eskasak adostuta, hurrengo urte luzeetarako ratioen eta baliabideen aldarrikapena alboratzea baitzekarren. Eta denborak arrazoiak eman digu: maiatzeko akordio hori jadanik aplikagarri izanda, ikastetxe askok behar eta gabezia berdinak izaten jarraitzen dute.**

Gauzak horrela, negoziazio kolektiboa ezabatuta eta etengabeko erabaki murriztaileen aurrean, mobilizazioari ekin eta administrazioaren jarduerari aurre egiteko ordua heldu da. Baditugu zenbait adibide, Hezkuntza Sailaren menpeko sukalde eta garbiketa zerbitzuan burututako mobilizazio eta grebak esaterako.

Sukalde eta Garbiketa da ELA sindikatuak Hezkuntzan gehiengo ordezkariak duen eremu bakarra. Sektorean 10 greba egun egin eta beste bi greba egun gehiagoko deialdia egin ondoren, langileek plantillaren kontsolidazio erreala gauzatuko duen meritu-lehiaketa bat izatea lortu dute, lanpostu kopuru nahikoa eta oinarri bermatzaileekin. Borroka eta grebaren bitartez "ezinezkoa" zena posible izatea lortu dute sukaldari eta garbitzaileek. Horretarako, langileen inplikazioa eta konfrontaziorako prest dagoen indar sindikal bat izatea ezinbestekoa izan da.

Eta hori da gure lan-baldintzak goitik behera desitxuratuak ikusi baino lehen irakasleok hartu behar dugun bidea. Nahikoa da, Hezkuntza Sailaren politika murriztaileari Planto!